

**SAI / SAI: DISASTER • Japonia**

Yutaro Seki, Kentaro Hirase (zuzendariak), Anne Nakamura (aktorea)
Shigeto Kunii (argazki zuzendaria), Hiromichi Hiedo (ekoizlea)

SERGIO BASURKO

Lehen ere Zinemaldian egonak dira Yutaro Seki eta Kentaro Hirase zuzendariak, hain zuzen ere, 2022ko New Directors sailean *Roleless* lanarekin parte hartu baitzuten. Aurten, *SAI: Disaster* lana dakarte, izen bereko telesailaren translazio zinematografikoa. Bitxia da Sekik eta Hirasek lau esku-tara zuzendu eta idatzitako proiektua. Alde batetik, sei atal eta bost orduko iraupena duen jatorrizko telesaila dago, joan den udaberrian Japoniako telebistan estreinatua, eta, bestetik, puzzle itxuraz Urrezko Maskorraren lehiaketara aurkeztzen duten bi ordu pasatzoko filma.

Donostian egun hauetan ematen ari diren filma telebistako telesailaren sintesi bat da. Honen pasarteak desmuntatu egin dituzte zinemako ikuslearentzat laburbiltzen duen muntaia baten bidez, ikus estilo soil eta atmosferiko batekin. *SAI* eta *SAI: Disaster*-ek erakusten dute film bat eta telesail bat bereizten dituen ez dela soilik iraupena. Izan ere, azaldu dute filma egiteko ez dutela gidoi berri bat idatzi, atal horietako zatiak josisiz sortu dutela. “Puzzle itxura izan dezake, baina erronka bezala hartu genuen, horrela sortzea gustatzen zaigu”, azaldu du Seki zuzendariak.

Kontakizun bakoitzean hilketa bat gertatzen da, baina Sekik eta Hirasek indarkeria pantailan erakustea saihesten dute; horren ordez, arrastoak eta zantzuak ematen dituzte, ikusleari nor bere puzzlea osatzeko aukera ematen diotenak eta gizabanako bera den edo hainbat pertsonaia aktore berak interpretatzen dituen zinema-jokoa pantailaratuz. Misterioa eta beldurra nabarmentzen dira filmean, eta zuzendariak aitortu dute “beldur mota berri bat” islatzen ahalegindu direla: “Ez daude beldurrezko eszenak, baina

ez da beldur zuzena, zeharkakoa da, eguneroko gauzak pasatzen dira, eta eszena horiek beldurra sortzea lortu dugu. Beldur ikusezin bat”.

Zerikusirik ez duten lau pertsona aurkeztzen zaizkigu, bakoitza bere hirian, bakoitza bere bizitzarekin, gizon misteriotso batek lotzen ditu, guztietan agertzen baita Teruyuki Kagawa, guztietan pertsonaia ezberdin bat antzeztuz. Film hasierako eszenan dakusagunez, hondamendi natura-

lez hitz egiten du pelikulak: “Japonian asko daude, tsunamiak, lurrikarak, gaixotasunak... eguneroko kontua dira, eta hori ere islatu nahi genuen. Antzezte nagusiari ere hondamendi natural baten gisako hiltzailea agertzeko eskatu genion”.

Trametako batek krimen batzuen ikerketa jarraitzen badu ere, *SAI: Disaster* ez da polizia-generoan sartzen. Kronika beltzaren, pertsonaien azterketaren eta erretratu sozialaren

artean mugitzen da filma, baina bere anbigutasunak zaila egiten du genero jakin batean sailkatzea. Narratiba zatikatuak eta misterioaren eraikuntza progresiboak bizitza arruntaren ezegonkortasuna nabarmentzen dute ustekabearen aurrean, eta azken zatian bakarrik azaleratzen dira gertakariak denbora-erlazioa eta haien kronologia, eta, pertsonaietako baten testigantza bidez, obraren tesia eta helburua iradokitzen dira.



Sai: Disaster filmeko ordezkariak gustura kamera aurrean.

GARI GARAIALDE

Reimagining fear through the unseen

Directors Kentaro Hirase and Yutaro Seki are back to San Sebastian in the Official Selection with their new film, *SAI / SAI: Disaster*, featuring celebrated Japanese actors Kagawa Teruyuki and Anne Nakamura.

At today's press conference, they discussed their innovative approach to terror, emphasising everyday fears rather than explicit horror. Drawing inspiration from Japan's natural disasters, the film explores an intangible fear, portraying a more indirect kind of terror. Unlike traditional horror films, they intentionally avoided making the antagonist a serial killer, rather focusing on creating a natural disaster-like presence.

Based on a six-episode TV series, the film takes elements from the original to create a distinct narrative, challenging conventional storytelling by following a non-linear structure. Nakamura, who reprised her role from the TV series, expressed her excitement about working with the team. The directors praised Teruyuki's powerful performance and expect Japan's evolving cinematic future to resonate internationally.



ZINEMAREN
HIRU ALDIEN
ESKOLA

ARTXIBOA ZINEMATOGRAFIKOAN
MASTERRA

*Gure garaiko
irudien
labirintoa*

— Zaharberitze eta zaintza
zinematografikoa

MÁSTER EN ARCHIVO
CINEMATOGRAFICO

*El laberinto
de las imágenes
de nuestro tiempo*

— Preservación y restauración
cinematográfica

MASTER IN FILM
PRESERVATION STUDIES

*The labyrinth
of images of
our time*

— Film preservation
and restoration